

Beaz, S.A.U.

Sarrera

Sozietateak beharrezko jarduera guztiak egingo ditu, enpresen lehiakortasuna sustatu, garatu eta indartzeko, kalitatezko lanpostuak sortu eta mantentzeko, eta, oro har, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzailea bihurtzeko, non sozietatearen kohesioak eta lehiakortasunak Bizkaiko gizartearen egungo eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten.

2018. urtean 2015ean identifikatu ziren ildo estrategikoak finkatu dira eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2016-2020 aldirako ezarritako helburuen fruituak biltzen hasi gara.

Gaur egun esan daiteke BEAZ, S.A.U. Lurraldeko berrikuntza eta ekintzailetza ekosistemako erreferentziako antolakundea dela eta Bizkaiko enpresa-egitura hobeto ezagutzen duena eta haiekin harreman gehien duena, ETE eta enpresa berriei dagokienez.

Hain zuzen ere, gure enpresengandik hurbil egoteagatik, bertatik bertara ezagutu ahal izan ditugu euren arazoak eta beharrianak, horrela, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresei laguntza emateko ezartzen dituen egitarauai eta ETEei eta ekintzaileei laguntza emateko zerbitzu berriak garatzeari dagokienez egin daitezkeen ekintzak iradoki ahal izateko, beti ere haien hazkundea bultzatzeko xedeaz, gure lurraldeko jarduera ekonomikoa eta enplegua hobetuz.

Gure enpresen errealitatea etengabe aztertzearen ondorioz, sektoreak bultzatzeko ekintzak gauzatu ahal izan dira, batez ere sormen-industrien arloan. Helburua sektorearen kontzientzia sortzea eta, arlo horretan, nazioarteko agertokian Lurralde berritzailearen irudia proiektatzea zen.

Introducción

La sociedad tiene por objeto social la realización de todas aquellas actividades necesarias para la promoción, desarrollo y fomento de la competitividad de las empresas, para la creación y mantenimiento de puestos de trabajo de calidad y, en general, para hacer de Bizkaia un territorio innovador, creativo, dinámico y emprendedor, en el que la competitividad y la cohesión social constituya la garantía del bienestar presente y futuro de la sociedad de Bizkaia.

Este año 2018 se han consolidado las líneas estratégicas identificadas en el año 2015 y se han comenzado a recoger los frutos en los objetivos marcados por la Diputación Foral de Bizkaia para el período 2016-2020.

Actualmente, se puede decir, que BEAZ, S.A.U. es la organización de referencia en el ecosistema de innovación y emprendimiento del territorio y la organización que mayor contacto y conocimiento tiene del tejido empresarial de Bizkaia, a nivel de Pymes y empresas de reciente creación.

Precisamente esa cercanía a nuestro tejido empresarial es lo que ha hecho posible conocer de primera mano su problemática y necesidades y, de esta manera, sugerir aquellas actuaciones que realmente dan respuesta a sus retos en materia de Programas de impulso a las empresas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia o el desarrollo de nuevos servicios de apoyo a las pymes y personas emprendedoras, con el fin de potenciar el crecimiento de las mismas mejorando la actividad económica y el empleo de nuestro territorio.

Este continuo análisis de nuestra realidad empresarial ha hecho posible iniciar acciones de impulso sectorial, centradas fundamentalmente en las industrias creativas. Se trataba de generar conciencia de sector y proyectar la imagen de un Territorio innovador en este ámbito en el escenario internacional



Beaz, S.A.U

Bestalde, barruko lantaldeak merkatuko talde sektorialen arabera berrantolatzearen ondorioz, espezializazio, gaikuntza eta solaskidetza handiagoa lortzen ari gara, merkatuko sektore bakoitzaren errealitatea eta beharrianak hobeto ezagutu ahal izateko.

Jardueren bilakaera

I. Antolaketa eta posizionamendua

Sozietatearen antolaketari dagokionez 2019rako aurreikusitako jokabide-ildo nagusiak hauexek dira:

a) Eskualdeetako presentzia

Eskualde, eremu, gobernantza-eredu eta lantaldeen osaera aztertu eta eta haien ezaugarriak ezarri ondoren, 2018. urtean 2017-2019 hirurtekorako identifikatutako erronkak burutzen jarraitu dugu.

2018. urtean burutu diren erronkak oso zuzenduta egon dira enpresa egiturarantz, izan ere helburua enpresetara hurbiltzea izan da, eremu bakoitzeko jarduera ekonomikoa hobetzeko helburuarekin.

2019. urteari dagokionez, Bizkaiko ETEen eta ekintzaileen lehiakortasuna hobetuko duten erronkekin lanean jarraitzeaz gain, proiektua eredugarria izan dadin ere nahi dugu, lurralde bateko garapen ekonomikoa maila askotako lurralde-estrategiarekin nola sustatu daitekeen erakusteko eta tokiko eragileekin batera ekiteko kanal bakarra bihurtzeko.

Y por otra parte la reorganización interna de los equipos de trabajo en grupos de mercado sectoriales está consiguiendo una mayor especialización, capacitación e interlocución para conocer y comprender mejor la realidad y las necesidades de cada sector de mercado.

Evolución de las actividades

I. Organización y posicionamiento

Desde el punto de vista de la organización, las principales actuaciones previstas para 2019 son:

a) Presencia comarcal

Una vez realizado el análisis y la caracterización de las zonas, las comarcas, la configuración del modelo de gobernanza y de los distintos equipos de trabajo, este año 2018 se ha continuado con la ejecución de los retos identificados para el trienio 2017-2019.

Los retos ejecutados para este año 2018 han estado muy orientados al tejido empresarial con el objetivo de facilitar el acercamiento a las empresas para mejorar la actividad económica de cada una de las zonas.

Para el año 2019, además de continuar trabajando con retos que mejoren la competitividad de las pymes y las personas emprendedoras de Bizkaia, también se quiere que este proyecto sea un ejemplo de cómo fomentar el desarrollo económico de un territorio con una estrategia territorial multinivel y se convierta en el canal único de interrelación con los agentes locales.



Beaz, S.A.U

b) Nazioarteratzea

Sozietateak parte hartzen du Europako zenbait saretan (EBN- Europako Enpresa eta Berrikuntza Zentroen Sarea eta EEN-Enterprise Europe Network) eta eskaintzen dituen zerbitzuetako batzuek nazioarteko bokazioa dute, esate baterako enpresa-bizkortzea nazioarteko nodoetan, BIND 4.0..., proiektu estrategikoetan lanean jarraitzen dugu Bizkaia ekintzailatza eta berrikuntzaren arloan nazioarteko erakartze-gunea izan dadin.

Helburua elkarlanean aritzeko nazioarteko eragileengana heltzea da, gure ETEek ezaguera berriak eskura ditzaten eta merkataritza eta teknologia bazkide berriengana hel daitezen, horren ondorioz lankidetzak-proiektuek Bizkaian zerbitzu edo ezaguera berriak sortzeko aukera eman dezaten. Halaber, nazioarteko talentua eta inbertsioa erakartzea, Bizkaia Europako hegoaldeko ekintzailatzarako ekosistema berritzailea bihurtu dadin.

c) Berrikuntza eta ekintzailatza sistema bultzatzea. Enpresak erakartzea.

2018. urtean jada lan-ildo berri bati ekin zaio eta oso emaitza onak eskaintzen ari da, hau da, Bizkaiko lurraldean eskaintzen diren zerbitzu eta laguntza-programa guztiak multzokatzea eta osorik modu proaktiboan komunikatzea.

Helburua da Estatuko edo Europako ekintzaileek gure ekosistema ezagutu dezatela, hazteko aukera handiak dituzten enpresa teknologiko berriak eta haien atzean dagoen ekintzaile eta inbertsio-gileen talentua erakarri.

Zeregin hau burutzeko lan koordinatua burutzen ari gara hainbat sail eta antolakunde publikorekin, eta baita Bizkaiko enpresa eragile eta erreferenteekin ere, ekintzaileek oso ontzat jotzen duten sendotasun eta trinkotasuna emanez.

b) Internacionalización

Además de las redes en las que BEAZ, S.A.U. ya está presente en Europa (EBN – Red Europea de Centros de Empresas e Innovación y EEN – Enterprise Europe Network) y de que algunos de los servicios ofrecidos tienen vocación internacional, como aceleración en nodos internacionales, BIND 4.0..., se continúa trabajando en proyectos estratégicos que hagan de Bizkaia un polo de atracción internacional en emprendimiento e innovación.

El objetivo es acceder a aquellos agentes internacionales con los que se pueda colaborar, de forma que facilite el acceso a nuestras pymes a nuevo conocimiento y socios comerciales/tecnológicos y surjan proyectos de cooperación que permita la generación de nuevos servicios o conocimiento en Bizkaia. Así como la atracción de talento e inversión internacional que convierta a Bizkaia en el ecosistema de emprendimiento innovador del sur de Europa.

c) Impulsar el ecosistema de innovación y emprendimiento. Atracción de empresas.

Un línea de trabajo que ya se ha comenzado a trabajar este año 2018 y que está dando unos muy buenos resultados, ha sido la de paquetizar y comunicar de una manera integral y proactiva todos los servicios y programas de ayuda que se ofrecen en el territorio de Bizkaia.

El objetivo es que las personas emprendedoras de otras regiones estatales o europeas conozcan nuestro ecosistema, atraer a nuestro territorio la constitución de nuevas empresas tecnológicas con alto potencial de crecimiento y el talento emprendedor e inversor que hay tras ellas.

Esta tarea nos está implicando un trabajo coordinado con distintos departamentos y organizaciones públicas, e incluso con empresas tractoras y referentes de Bizkaia que aportan al ecosistema una consistencia y solidez muy valoradas por las personas emprendedoras.



Beaz, S.A.U

c) Bertoko bezeroak indartzea

Bizkaiko enpresa-sarea ezagutzea BEAZ, S.A.U.ren abantaila lehiakor nagusia da eta, horregatik, berebiziko ahalegina egin behar da jarduera honekin jarraitzen, know how horri atxikiz.

Enpresei bisitaldiak egiten jarraituko dugu, hurrengo gaitan:

- Proiektuen segimendua: 2017 eta 2018 urteetan diru-laguntza eman diegun enpresa guztiei bisitaldia egitea, bertatik bertara ezagutzeko proiektuaren egoera eta enpresaren beharrianak eta balio erantsiko beste zein zerbitzu interesatu ahal zien ikusteko.

- Fidelizazioa: Helburua gaur egun indarrean dagoen diru-laguntzarik ez daukaten enpresei bisitaldia egitea da, izan ere haiekin harremanetan jarraitu beharra dago haien geroko proiektuak eta gaur egungo beharrianak ezagutzeko.

- Bereganatzea: BEAZ,S.A.U.rekin inoiz lan egin ez duten enpresa berriei bisitaldiak egitean datza, berrikuntza-ekosisteman sar daitezen saiatzeko.

ON Bizkaia Sarien urteroko ekitaldia ospatzen jarraitzea espero dugu, izan ere bertan Bizkaiko enpresa-sare berritzaileko ordezkariak esanguratsua biltzen baita. 2018. urtean 300 enpresatako 400 pertsona inguru egon ziren, Bizkaiko berrikuntza-ekosistemako beste ordezkari batzuekin batera. 2019. urtean parte-hartzaile kopurua mantentzea espero dugu.

Gainera, Sozietaateak Bilbon dituen instalazioen baldintzak sendotzen jarraitzea espero da, jarduerak egin eta enpresen eta pertsona ekintzaileen topaketarako toki gisa erabiltzeko.

c) Fortalecimiento con los clientes locales

El conocimiento del tejido empresarial de Bizkaia es la mayor ventaja competitiva de BEAZ, S.A.U. por lo que hay que hacer un especial énfasis en continuar con esta actividad para seguir manteniendo este know how.

Se continuará la labor de visitas a empresas en concepto de:

- Seguimiento de proyectos: Visita de todas las empresas a las que les hemos concedido subvención durante los años 2017 y 2018 para conocer de primera mano la situación del proyecto y las necesidades de la empresa y ver qué otro servicio de valor añadido les puede interesar.

- Fidelización: Se trata de visitar aquellas empresas que actualmente no tienen una subvención en vigor, pero con las que es necesario seguir manteniendo el contacto para conocer sus proyectos futuros y sus necesidades actuales.

- Captación: Consiste en visitar nuevas empresas con las que BEAZ,S.A.U. no ha trabajado nunca pero que tenemos que tratar de incorporar al ecosistema innovador.

Se va a continuar celebrando el evento anual de los Premios ON Bizkaia, en el que reunimos una representación muy importante del tejido empresarial innovador de Bizkaia. En el año 2018 acudieron alrededor de 400 personas de 300 empresas, además de otros representantes del ecosistema innovador de Bizkaia. Para el año 2019 se espera mantener el número de asistentes.

Además, se espera seguir consolidando la condición de las instalaciones de la Sociedad en Bilbao, como lugar de desarrollo de actividades y encuentro para empresas y personas emprendedoras.



Beaz, S.A.U

Azken urteotako joera mantenduko dela uste da. Beraz, 4.000 pertsonatik gora etorriko direlakoan gaude eta horietatik 2.000 Bizkaia Sortzailea hallean egindako eta sektore horietako industriarekin lotutako jardueretara joan litezke. Gainerakoak enpresak eta pertsona ekintzaileak izango lirateke, BEAZ, S.A.U.n beren lanbide beharriaztarako erantzuna bilatzen dutenak.

d) Programa eta zerbitzuen etengabeko hobekuntza

Aurreko ekimenei erantzuna emateko gogor bai gogor lan egiten ari gara gaur egun dauden zerbitzuak eta programak hobetzeko, horiek gure helburu den publikora bideratzeko, hau da, hazteko aukera handia daukaten ETE eta ekintzaileengana.

e) Lehiakortasunaren zaintza

2018. urte honetan lehiakortasunaren zaintza sistema sektorial bat garatzeko lanean jarraitu dugu, sektore bakoitzaren alderdi giltzarriak hobeto ezagutzeko, merkatu-talde bakoitzeko bezeroekiko solaskidetza hobetzeko eta BEAZ, S.A.U.k xedetzat dituen sektore ekonomikoen berritasun nagusiak eskuratu ahal izateko. Aurten sistema hau beste lau sektoreetan ezartzea lortu da eta, beraz, jada lehentasunezko zatitza jo diren 10 sektoreetako 8 garatu dira. 2019. urtean lanean jarraituko dugu zaintza-sistema hau gainerako jarduera-sektoreetan ezartzeko.

2019. urtean asmoa da zaintza-sistema bat abian jartzea munduko eskualderik berritzaileenak aztertu eta burutzen ari diren jarduera zehazten berri eman dezan.

Es de esperar que siga la tendencia de los últimos años, con lo se espera la afluencia de alrededor de 4.000 personas, de las que cerca de 2.000 podrían corresponder a asistentes a actos realizados en el hall Bizkaia Creativa, en relación a las industrias de estos sectores, mientras que el resto pertenecerían a empresas y personas emprendedoras, cuya intención es buscar en BEAZ, S.A.U., una respuesta a sus necesidades profesionales.

d) Mejora continua de los programas y servicios

Para dar respuesta a las iniciativas anteriores se está trabajando intensamente en mejorar los servicios y programas existentes en la actualidad para orientar los mismos a nuestro público objetivo, pymes y personas emprendedoras de alto potencial de crecimiento.

e) Vigilancia competitiva

Este año 2018 se ha continuado trabajando en el desarrollo de un sistema de vigilancia competitiva sectorial que permita mejorar el conocimiento de los aspectos clave de cada uno de los sectores, mejorar la interlocución con los clientes de cada grupo de mercado y tener acceso a las principales novedades de cada uno de los sectores económicos a los que BEAZ, S.A.U. dirige su actividad. Este año se ha conseguido implantar este sistema para otros 4 sectores, por lo que ya se han desarrollado 8 de los 10 sectores identificados como prioritarios. En el año 2019 se continuará trabajando con la implantación de este sistema de vigilancia en los otros dos sectores de actividad.

Durante el año 2019 se espera poner en marcha un sistema de vigilancia que analice aquellas regiones del mundo más innovadoras y nos informe de las actuaciones específicas que están desarrollando.



Beaz, S.A.U

f) Zabalkundea

Ahal den enpresa kopuru handienera eta, oro har, gizartearengana heltzeko, Sozietatearen jardueren zabalkunde-lana egiten da zenbait bidetatik:

- Argitalpenak
- Online agerpena (Weba eta gizarte sareak)

BEAZ, S.A.U.k zenbait argitalpen baliatu ditu jakintza eskaintzeko eta berrikuntza bultzatzeko, sustatzaileei zein abian dauden enpresei begira.

2019an lan honekin jarraitzeko asmoa dugu, Beaz Bizkaiko berrikuntza eta ekintzaitza ekosistemako muinaren muinean indartzen laguntzeko.

II. Jarduketa-eremuak

a) Enpresa-proiektu berritzaile berriak sortu eta finkatzea.

Hobetzeko ohar daitezen gaiak inoiz alde batera utzi gabe, ekintzaileekin eta enpresa berritzaile sortu berriekin lanean jarraituko dugu bi jarduketa-mota garatzen:

- Enpresa proiektuak garatzeko eta enpresa berritzaileak sortzeko programa.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak zenbait urtetarako abian jarri duen Plan honen helburua Bizkaiko Lurralde Historikoan enpresen sorkuntza eta enpresa proiektu berritzaileen garapena bultzatzea da.

Sailarekin lankidetzazuzena izanik, plan horietan sartzen diren proiektuen sentsibilizazioa, izapidetzea eta tutoretza babestuko dituzte sozietateko teknikariek. Gai honetan esperientzia zabala daukagu, izan ere urtero 160 proiektu inguru aztertzen ditugu eta 100 proiektu ingururen segimendua egiten dugu. 2019. urtean antzeko kopurua izatea espero dugu.

f) Difusión

Con el fin de llegar al mayor número posible de empresas y a la sociedad en general, se realiza una labor de difusión de la actividad de la Sociedad a través de varios medios:

- Publicaciones
- Presencia online (Web y Redes sociales)

BEAZ, S.A.U., se ha valido de distintas publicaciones para acercar conocimiento e impulsar la innovación, tanto a personas promotoras como a empresas en marcha.

En 2019, se pretende continuar esta labor, y de esta manera ayudar a reforzar a Beaz como el núcleo del ecosistema innovador y de emprendimiento de Bizkaia.

II. Áreas de Actuación

a) Creación y consolidación de nuevos proyectos empresariales innovadores.

Sin perder de vista aquellos aspectos de mejora que se detecten, se va a continuar trabajando con personas emprendedoras y empresas innovadoras de nueva creación, desarrollando dos tipos de actuación:

- Programa de desarrollo de proyectos empresariales y de creación de empresas innovadoras.

Este plan, de carácter plurianual, lanzado por el Departamento de Promoción Económica y Territorial, tiene como objetivo impulsar la creación de empresas y el desarrollo de proyectos empresariales innovadores en el Territorio Histórico de Bizkaia.

En directa colaboración con el Departamento, el personal técnico de la Sociedad apoyará la sensibilización, tramitación y tutorización de los proyectos encuadrados en dichos Planes, materia en la que se dispone de una dilatada experiencia en la valoración de aproximadamente 160 proyectos anuales y el seguimiento de unos 100 proyectos. Para el año 2019 se espera mantener unas cifras similares.



Beaz, S.A.U

- Ekintzaileentzako orientabidea

Proiektuen bideragarritasunaz eta ezarpenerako eta proiektuak abian jartzeko orientabide estrategiko zerbitzu sistema bat beraien eskura jarriko da.

Gainera, jarduera honek Bizkaiko Lurralde Historikoaren garapen homogeneoa bultzatuko du, bertoko eskualdeetan sor daitezkeen ideia berritzaileak arakatzen ahaleginduz.

Helburu horiek lortzeko, horrelako proiektuen tutorizazioan esperientzia zabala duen pertsona taldea dago.

b) Enpresen hazkundea

2019. urtean Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak zenbait urtetako iraupenez abian jarri dituen sei plani laguntza ematen eta segimendua egiten jarraituko da:

- Berrikuntza eta inbertsio aurreratua Sustatzeko plana
- Nazioarteratze programa
- 3I egitaraua (Berrikuntza, Nazioarteratze eta Inbertsiorako laguntza orokorra)
- Bizkaia Sortzailea programa
- Artisautza Sustatzeko programa
- Gizarte Berrikuntza Enpresa edo Erakunde Berrien programa

Guzti horien helburua Bizkaiko enpresen sail desberdinetan lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzea da. Azken hori, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren laguntzarekin egiten da.

- Orientación a personas emprendedoras

Se pondrá a su disposición un sistema de servicios de orientación estratégica sobre la viabilidad, apoyo en la implantación y puesta en marcha de los proyectos.

Esta acción procurará, además, un desarrollo homogéneo del Territorio Histórico de Bizkaia, buscando rastrear todas aquellas ideas innovadoras que se puedan generar en las diferentes zonas del mismo.

Para la consecución de estos fines se dispone de un equipo de personas con amplia experiencia en la tutorización de este tipo de proyectos.

b) Crecimiento empresarial

A lo largo del año 2019 se va a continuar con el apoyo en la valoración y el seguimiento de seis planes de carácter plurianual lanzados desde el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial:

- Plan de Promoción de la innovación y la inversión avanzada
- Programa de Internacionalización
- Programa 3I (Apoyo integral a la Innovación, Internacionalización e Inversión)
- Programa Bizkaia Creativa
- Programa de Promoción de la Artesanía
- Programa de Nuevas empresas o entidades de innovación social

Todos ellos tienen como objetivo impulsar la competitividad y la innovación en las diferentes áreas de las empresas de Bizkaia, si bien este último se desarrolla bajo la cobertura, además, del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.



Beaz, S.A.U

Sozietateko langile teknikoen lana ekimen bakoitzera aurkeztutako proiektuak balioestea eta ostean hautatuak izateko baldintzak betetzen dituztenak eta beraz, onuradun izatera pasatzen direnak, onestea da. 2018. urtean 500 espediente inguru aztertuko dira eta 2019rako antzeko kopurua espero da.

Proiektuak onartu eta gero lan-taldeak (Saileko pertsonal teknikoarekin elkarlanean) aldizkako bisitak egingo ditu enpresetara eta haien proiektu bakoitzaren bilakaeraz eta beharrez interesatuko da, abian dauden zerbitzuekin balioa eskaintzeko, zerbitzu berriak garatu-beharra dagoela edo badauden diru-laguntza programetan egin litezkeen hobekuntzak zein diren jakiteko.

Bizkaiko ETEekin dugun elkarreraginean, horiekin lankidetzan arituko gara, beren lehiakortasuna bultzatuko duen etapa-ibilbide egokia ezarri ahal izateko.

c) Laguntza zerbitzuak

2018an enpresa eta pertsona ekintzaileentzat zenbait zerbitzu prestatzen eta finkatzen lan egin dugu, haien lehiakortasuna eta hazkundea sustatzeko.

- Mentoring: Enpresetako mentoreek osatutako sare bat da, beren jarduera-eremuetako hainbat profesional esanguratsuk osatua. Pertsona aholkulari hauek beren esperientzia, jakintza eta harremanak lehen fakturazioen mugarria bete duten enpresa sortuberrien esku jartzen dituzte, enpresa horien proiektuak merkatura arinago heldu daitezen lortu ahal izateko. 2018. urtean banakako mentoring zerbitzua taldekako mentoringarekin osatuko da.

El papel del personal técnico de la Sociedad comienza con la valoración de los proyectos presentados a cada una de las iniciativas y la consecuente aprobación de aquellos que superan los criterios de selección y acceden a la condición de beneficiario. A lo largo de este año 2018 se han valorado alrededor de 500 expedientes y para el año 2019 se espera una cifra similar.

A partir de la estimación de los proyectos, el equipo de trabajo (en colaboración con personal técnico del Departamento) realizará visitas periódicas a las empresas, interesándose por la evolución y necesidades de cada una de las empresas y sus respectivos proyectos, para aportar valor con los servicios de apoyo que ya están en marcha o detectar nuevas necesidades de desarrollo de servicios o mejoras en los programas de ayuda existentes.

En nuestra interacción con las pymes de Bizkaia, se colaborará con las mismas de forma que puedan establecer un adecuado itinerario de etapas a seguir que impulsen su competitividad.

c) Servicios de apoyo

A lo largo de 2018, se ha trabajado en la consolidación de una serie de servicios para empresas y personas emprendedoras con el fin de promover su competitividad y crecimiento.

- Mentoring: Es una red de personas mentoras empresariales compuesta por profesionales de relevancia en sus ámbitos de actuación. Estas personas mentoras ponen su experiencia, conocimientos y contactos a disposición de las empresas de reciente creación que ya han cumplido el hito de sus primeras facturaciones, con el objetivo de acelerar la llegada al mercado de los proyectos empresariales. Este año 2018 se va a completar el servicio de mentoring individual con el mentoring grupal.



Beaz, S.A.U

- Nazioarteko nodoetan enpreak bizkortzea: Zerbitzu honek enpresa sortu berriei aukera ematen die denboraldi jakin batean Bostongo mentore, antolakunde inbertsiogile eta ekintzaitza-ekosistemako gainerako eragileekin elkarrekin, Masschallenge edo Cambridge Innovation Center erakundeen bidez. 2018. urtean Tel AQvivekon beste berrikuntza-ekosistema batekin lanean hasi gara, Sosaren bitartez.
- Aceleración en nodos internacionales: Es un servicio que ofrece a las empresas de reciente constitución la posibilidad de interactuar durante un periodo de tiempo determinado con las personas mentoras, organizaciones inversoras y demás agentes del ecosistema de emprendimiento de Boston, a través de Masschallenge o de del Cambridge Innovation Center. Este año 2018 se ha empezado a trabajar con otro ecosistema innovador como Tel Aviv a través de Sosa.
- Hazteko aukera handia daukaten enpresak bizkortzea: ekimena honetan datza, sei hilabetez bizkortzea, aholkulari espezializatuen laguntzarekin, enpresek daukaten nazioarte-gogoko proiektuak, horrek enpresen beraien tamainan jauzi kualitatibo garrantzitsua egitea suposatzen duenean.
- Aceleración de empresas con potencial de crecimiento: La iniciativa consiste en acelerar durante seis meses con personal asesor especializado aquellos proyectos con vocación internacional que tenga una empresa y le suponga un salto cuantitativo importante en la dimensión de la propia empresa.
- Barne ekintzaitza: Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean burutzen den programa honetan negozio-ideia berritzaileak abian jartzeko prestakuntza, zabalkunde eta laguntza pertsonalizatua eskaintzeko ekintzak daude.
- Intraemprendimiento: En colaboración con el Gobierno Vasco es un programa de actividades formativas, difusión y acompañamiento personalizado para la puesta en marcha de nuevas ideas de negocio innovadoras.
- Diru-laguntza mapa: Zerbitzu honen bidez enpresei aholkularitza eta orientabidea ematen diegu beste erakunde publiko/pribaturen finantzio publikoa eskuratu ahal dezaten: CDTI, ENISA, ICEX, SPRI, SEED CAPITAL...
- Mapa de ayudas: Es un servicio en el que tratamos de asesorar y orientar a la empresa para el acceso a la financiación pública de otros organismos público/privados como CDTI, ENISA, ICEX, SPRI, SEED CAPITAL...
- Prestaekin: Enpresak sortzeko diru-laguntza jaso duten ekintzaileei gaikuntza ematean datza, ohartu diren prestatze-beharrizanak estaltzen saiatzeko, esate baterako marketin digitala, enpresen balioespena, proiektuaren pitchinga edo markaren irudia.
- Prestaekin: Consiste en la capacitación de las personas emprendedoras a las que se les ha concedido una subvención para la creación de empresas y que trata de cubrir las necesidades de capacitación detectadas como el marketing digital, valoración de empresas, pitching del proyecto o imagen de marca.



Beaz, S.A.U

- Open innovation: Enpresa eragile edo erreferente batek erronka bat jartzen du eta enpresa sortu berriak erantzuna ematen ahalegintzen dira, banaka nahiz elkarlanean, merkatura heltzea bizkortuko dien lehen bezeroa lortu ahal izateko. BIND 4.0 eta BIZKAIA OPEN FUTURE. 2018. urtean erronka horiek kudeatzeko abian jarri da gure tresna propioa: BLOK!
- EEN Sarea. BEAZ, S.A.U. Enterprise Europe Network-eko (60 herrialde baino gehiagoko 600 antolakundetik gora) euskal nodoko kidea da, enpresen nazioarteratzea eta lankidetzaz bultzatzeko. Gure zerbitzuen artean teknologia edota merkataritza bazkideak bilatzea, Europako diru-laguntza programak eskuratzeari buruzko informazioa ematea eta lege eta finantziaizko gaitan aholkularitza ematea daude.
- PAE. 2013. urtetik BEAZ, S.A.U PAE Sarean dago (Ekintzaileari Arreta emateko Guneak). Helburua ekintzaileei informazio eta aholkularitza zerbitzu presentzialak eskaintzea da, beren enpresa ekimenak definitzeko eta izapidetze telematikoa egin dezaten, eta baita Erantzukizun Mugatuko Sozietatearen lehen urteetan ere.
- Open innovation: Consiste en que una empresa tractora o referente ponga un reto y que empresas de reciente constitución traten de dar una respuesta al mismo, bien individualmente o en cooperación, con el objetivo de lograr un primer cliente que les va a acelerar su llegada al mercado. BIND 4.0 y BIZKAIA OPEN FUTURE. Este año 2018 se ha puesto en marcha una herramienta propia BLOK! para la gestión de dichos retos.
- RED EEN. BEAZ, S.A.U. es miembro del Nodo vasco de la Enterprise Europe Network (con más de 600 organizaciones de más de 60 países) para apoyar la internacionalización y la cooperación empresarial de las empresas. Entre nuestros servicios está la búsqueda e identificación de socios tecnológicos y/o comerciales, la información sobre el acceso a los programas de ayuda europeos, o la asesoría en temas legales y de financiación.
- PAE, Desde el año 2013, BEAZ, S.A.U., pertenece a la red de PAE (Puntos de Atención al Emprendedor), con la misión de prestar servicios presenciales de información y asesoramiento a las personas emprendedoras en la definición y tramitación telemática de sus iniciativas empresariales, así como durante los primeros años de actividad de la Sociedad de Responsabilidad Limitada.

2019an zerbitzuok eskaintzen jarraituko dugu, 2018an ohartu ditugun hobekuntzak aplikatuz, eta open innovation zerbitzua bultzatzen ahaleginduko gara; halaber, rol aktiboagoa hartuko dugu ETE eta ekintzaileei finantzaketa eskuratzen laguntza emateko

Bestalde, parte hartzen duten enpresek jarduera ekonomiko eta enpleguari dagokionez lortutako emaitzak aztertzen jarraituko dugu, etorkizunean gure enpresa-sarean jarduera ekonomikoaren inpaktu handiena lortzen duten zerbitzuak zein diren jakiteko.

Durante el año 2019 se va a continuar ofreciendo estos servicios, aplicando las mejoras detectadas este año 2018, y se va a tratar de potenciar el servicio de open innovation, así como jugar un rol más activo en facilitar el acceso a la financiación de las pymes y personas emprendedoras.

Por otro lado, se va a continuar analizando los resultados conseguidos por las empresas participantes en términos de actividad económica y empleo, para en el futuro saber cuáles son los servicios que generan un mayor impacto de actividad económica en nuestro tejido empresarial.



Beaz, S.A.U

d) Inkubazioa

BEAZ, S.A.U.k 2018. urtean lanean jarraitu du proiektu berritzaileak inkubatzeko zenbait guneren elkar-kudeaketan:

- Coworking gunea: BEAZen instalazioetan kokatuta dagoen Design Kabi, negozioa zehazteko eta bideragarritasuna aztertzeke fasean dauden enpresa proiektuetarako coworking gunea da. Bertan networkinga bultzatzen da, BEAZen lantalde teknikoarengana heltzeko sarbide zuzena dago eta bertako proiektuak heatzen dira.
- Inkubatzeko unibertsitate-guneak: ZITEK UPV-EHU eta Deustokabi haztegien helburua unibertsitate komunitatearen barruan ekintzailtza-kultura bultzatzea eta teknologia oinarriko enpresa berritzaileak sortzea da. 2019an lanean jarraituko dugu teknologiaren transferentzia prozesuak bizkortzen.
- Inkubatzeko gune espezializatuak: BIC Bizkaia eta KBI digital
 - o BIC Bizkaia haztegia Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dago kokatuta eta espezializatuta dago teknologia bio-mikro-nanoetan, manufaktura aurreratuan eta teknologia garbietan. Eusko jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen dute eta Beazek kudeatzen du
 - o KBI Digital ekintzailtza digitaleko proiektuen inkubagailu aurreratu bat da, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera bultzatua eta Bilbao Ekintzak eta Beazek elkarrekin kudeatua.

d) Incubación

BEAZ, S.A.U. durante este año 2018 ha continuado trabajando en la cogestión de diversos espacios de incubación de proyectos innovadores:

- Espacio de Coworking: El Design Kabi ubicada en las propias instalaciones de BEAZ, es un espacio de coworking para proyectos empresariales en fase de concreción de negocio y análisis de la viabilidad, donde se prioriza el networking, el acceso directo al equipo técnico de BEAZ y la difusión de los proyectos ubicados.
- Espacios universitarios de incubación: ZITEK UPV-EHU y Deustokabi, tienen como objetivo fomentar la cultura emprendedora y la creación de empresas innovadoras de base tecnológica entre la comunidad universitaria. Durante el 2019 se va a continuar trabajando en la aceleración de los procesos de transferencia tecnológica.
- Espacios especializados de incubación: BIC Bizkaia y KBI digital
 - o BIC Bizkaia es una incubadora ubicada en el Parque Científico y Tecnológico de Bizkaia, especializada en tecnologías bio-micro-nano, manufatura avanzada y tecnologías limpias, promovida por el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia y gestionada por Beaz.
 - o KBI Digital es una incubadora avanzada de proyectos de emprendimiento digital impulsada por el Ayuntamiento de Bilbao y la Diputación Foral de Bizkaia y gestionada, conjuntamente, por Bilbao Ekintza y Beaz.



Beaz, S.A.U

2018. urtean inkubatutako proiektu bakoitzaren banakako segimenduarekin jarraitu da, bizkortzeko beharrezkoak diren gakoak zein diren jakiteko, eta berrikuntza irekia sustatu da enpresa eragileekin. 2019. urtean inkubatutako proiektuen bizkortze-bideak indartzen ahaleginduko gara.

A lo largo de este año 2018 se ha continuado con el seguimiento individual de cada proyecto incubado con el objetivo de identificar las claves necesarias para la aceleración del mismo y se ha fomentado la innovación abierta con empresas tractoras. Para el año 2019 se va a tratar de fortalecer las vías de aceleración de los proyectos incubados.

e) I+G+b-ren ziozko zerga kenkariak eta berrikuntza funtsa

e) Deducciones fiscales por I+D+i y Fondo de innovación.

2018an Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta BEAZ, S.A.U.-k Hitzarmen berria sinatu dute eta horren barruan agertzen denez, berrikuntza teknologikorako txosten teknikoak egiteaz gain, Sozietateen gaineko Zergaren 64 BIS artikuluan jasotzen den finantzatzailea bilatzen ari diren I+G+b proiektuetarako kalifikazioko txosten teknikoak egingo ditu BEAZek, eta hirugarren bide bat ere badago, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak finantzatzeko kalifikazioko txosten teknikoak egiteari dagokiona.

Este año 2018 se ha firmado un nuevo Convenio con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, BEAZ, S.A.U. que recoge, además de la emisión informes técnicos para la calificación a efectos fiscales de la innovación tecnológica, también incluye la emisión de informes técnicos de calificación para proyectos de I+D+i que estén buscando financiador recogido en el artículo 64 BIS del Impuesto de Sociedades, y una tercera vía que es la emisión de informes técnicos de calificación para la financiación de proyectos con fondos europeos para el impulso de la innovación.

2018. urtean berrikuntza teknologikoko 163 espediente baloratu dira eta urtea bukatutakoan finantzaketa bilatzeko 20 eskaera izatea espero dugu.

A lo largo de este año 2018 se han valorado 163 expedientes de innovación tecnológica y se espera terminar el año con 20 solicitudes para la búsqueda de financiación.

2018ko ekainaren amaieratik BEAZ, S.A.U. berrikuntza funtsera sarbidea izateko txostenak egiten hasi da, tamainako ahalegina eginez erabakia hartzeko epea bost lanegunetik gorakoa izan ez dadin. 2018. urtea amaitutakoan 30 espediente inguru baloratzea espero da.

Desde finales de junio de 2018 BEAZ, S.A.U. ha comenzado con la emisión de los informes para el acceso al fondo de innovación, haciendo un esfuerzo importante en que el plazo de resolución no exceda de los cinco días laborables. Este año 2018 se espera finalizar con la valoración de alrededor de 30 expedientes.

2019. urtean hiru txosten-mota hauek egiten jarraituko dugu eta gutxi gora behera 220 eskaera jasotzea espero dugu.

Durante el año 2019 se va a continuar emitiendo estos tres tipos de informes y se esperan recibir aproximadamente 220 solicitudes.



Beaz, S.A.U

f) Sormen-industriak eta Lurraldearen zabalkundea

2012. urtetik laguntza eman zaio Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari gure Lurraldeko sormen-industriak bultzatzeko zereginen, Bizkaia arlo honetan erreferentea izan dadin.

BEAZ, S.A.U. ren zeregin nagusia BiDC-ren (Bilbao – Bizkaia Design Council) idazkaritza kudeatzea da, Lurraldeko eragileek arlo honetan egiten dituzten ekintzak koordinatzeko eta sektoreetan lan egiten duten enpresa eta pertsonak biltzeko.

2019an Industria hauek bultzatzen jarraituko dugu, sektore osoa sustatu dezaketen proiektuengan interes berezia jarriz, ahal bada nazioarteko izaera dutenak hobetsiko direlarik.

III. Inbertsioen programa

2019an ez dago inbertsio berririk egiteko aurreikuspenik, ez bada, beharrezkoa izango balitz, ekipamenduren bat ordeztuko.

Egoera hori gertatuz gero, kontu-sail hori baliabide propioekin finantzaturik egongo litzateke.

f) Industrias creativas y proyección del Territorio

Desde 2012, se ha apoyado al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial en la labor de impulso de las industrias creativas en nuestro Territorio, con el fin de posicionar Bizkaia como referente en este campo.

La labor de BEAZ, S.A.U., se centra en la secretaría del BiDC (Bilbao – Bizkaia Design Council), que trata de coordinar las acciones de los diferentes agentes del Territorio en este campo y aglutinar a las empresas y personas que trabajan en estos sectores.

En 2019 se continuará con esta labor de promoción de estas industrias, con especial interés en aquellos proyectos que puedan traccionar al sector en su conjunto, preferiblemente de carácter internacional.

III. Programa de inversiones

No hay previsión de acometer nuevas inversiones en el año 2019, más allá de la reposición de algún equipamiento, en el caso de que resultara necesario.

De darse la mencionada situación, dicha partida estaría financiada con recursos propios.